

2011ko lehen hiruhilekoko ezkontzetatik % 92 ezkontza zibilak izan ziren

Ezkontza kopuruak %11 egin du behera 2010eko aldi berdinarekin alderatuta

Euskal AEan 928 bikote ezkondu ziren 2011ko lehen hiruhilekoan, hau da, 2010eko laugarren hiruhilekoan baino % 43 gutxiago (1617 bikote ezkondu baitziren), eta iazko hiruhileko berean baino % 11 gutxiago (1042 bikote ezkondu ziren), Eustaten datuen arabera. Urteko lehen hiruhilekoan bikote gutxi ezkondu ohi dira, batez ere urtarrilean eta otsailean.

Euskal AEko ezkontzak: Joan diren urteetan bezala, hiruhileko honetan ezkontza zibilek dute proportzio handiena (%92), eta iazko aldi berdinarekin alderatuta ehunekoak 4,6 puntutan egin du gora. Hiru lurralde historikoetan egin du gora, eta hortaz, Araba/Álavan zifra %92koa izan da, Bizkaian %93,2koa eta Gipuzkoan %90,2koa.

2011ko lehenengo hiruhilekoko 928 ezkontzetan bizilekua Euskal AEn duten 892 gizonezko eta 895 emakumezko ezkondu ziren. 775 gizonezko (%86,9) lehenengo aldiz ezkondu ziren eta, bestalde, 9 gizonezko alargun eta 108 gizonezko dibortziatu berriz ezkondu ziren. Lehenengo aldiz ezkonduetakoei dagokienez, emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino pixka bat txikiagoa izan zen, ezkontzea erabaki zuten emakumezko ezkongabeak 755 izan baitziren (%84,4), alargunak 4 eta dibortziatuak 136.

Ezkontzak ezkontideen adinaren arabera sailkatuz gero, ikusi da senarretatik %85,2k 30 urte baino gehiago zuela, eta emazteei dagokienez, bestalde, adin tarte horretan emakumezkoen %78,5 zegoela. Gizonezkoen kasuan, 30 urtetik gorako ehunekoak puntu bat eta erdi egin du behera iazko hiruhileko berdinarekin alderatuta, orduan kopurua % 86,7koa izan baitzen. Emakumezkoen kasuan, oster, 30 urtetik gorako ehunekoak 3,7 puntutan egin du gora 2010arekin alderatuta (%74,8).


2011ko lehenengo hiruhilekoan ezkondu berri ziren emakumezkoen %17,2k eta gizonezkoen %14,7k atzerriko nazionalitatea zuten. Emazteen kasuan zifrak behera egin du iazko garai berdinarekin alderatuta (%18,1), eta senarren kasuan, aldiz, 3,3 puntutan egin du gora (2010ean %11,4 izan zen).

Bestalde, sexu bereko pertsonen arteko 31 ezkontza ospatu ziren, iazko hiruhileko berdinean erregistratutako zifra bera. Horietatik, 21 ezkontza gizonezkoen artean izan ziren, eta 10 emakumezkoen artean.

	2011ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2010ko 4. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2011ko 1. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	928	100,0	1.617	100,0	1.042	100,0
Kanonikoak	74	8,0	454	28,1	131	12,6
Zibilak	854	92,0	1.163	71,9	911	87,4
SENARGAIAK	892	100,0	1.570	100,0	1.003	100,0
Ezkongabeak	775	86,9	1.370	87,3	840	83,7
Alargunak	9	1,0	6	0,4	12	1,2
Dibortziatuak	108	12,1	194	12,4	151	15,1
EMAZTEGAIAK	895	100,0	1.580	100,0	1.013	100,0
Ezkongabeak	755	84,4	1.396	88,4	880	86,9
Alargunak	4	0,4	10	0,6	6	0,6
Dibortziatuak	136	15,2	174	11,0	127	12,5

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

1. grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua oinarria (100= b.b.)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua